

Dispertsioarekin amaitzea eskatu dute eskualdeko presoek senideek

DEIA ▶ Gaur Bilbon egingo den manifestaziorako deia egiten dute; inplikazio gehiago eskatzen dute ▶ 6



Kanarioetan Espainiako txapelduna

VILLABONA ▶ Gabi Ormazabal billabonatarrek Espainiako Kanarioen Txapelketa irabazi berri du, taldekako kanario hori marfilen mailan. Guztira 17.000 kanariok hartu zuten parte, banaka eta taldeka. Aurten jaiotako kanarioak ziren guztiak. Ormazabalek zortzi urterekin izan zuen lehen kanarioa eta gaur egun 400 inguru ditu etxean. Munduko Txapelketan, Herbeheretan, parte hartzea du hurrengo helburua billabonatarrek. **MADDI SOROA** ▶ 4



JOXEMI SAIZAR

Itzulpengintzatik maketazio mundura jauzi

ASTEASU ▶ Jose Luis Agote liburuak maketatzen aritzen da; Bernardo Atxagaren 'Obabakoak' liburuak markatu zuen ▶ 5

Areto futbol taldeak gaur Burlatan jokatu du

Konpromiso zaila du, beharra dutelako ▶ 7

Mendi irteeren egutegia atera du Alpino Uzturrek

Ibilaldi errazak dira, Euskal Herria ezagutzeko; hilaren 16an da lehena ▶ 2



J.SAIZAR

Aurrerak Altsasua hartuko du etxean

Errebantxa hartu nahi diete bihar ▶ 7

ARETO FUTBOLA ▶

Hegoaldeko Galizian du partidua gaur

Hegoaldeko Galizako Ourense du partidua gaur, 17:00-etatik aurrera eta dagoneko han izanen dira. Galizarrek denboraldia indartsu hasi bazuten ere, ligak aurrera egin ahala, normalduz joan dira, baina hala ere bosgarren daude sailkapen orokorrean. Argote, tolosarren bigarren entrenatzaileak atzo egin zituen adierazpenen arabera «irabazteko esperantzarekin», doaz etxeokoa eta horren beharra dutela ere nabarmendu zuen «garaipeneko hiru puntuak moralara igotzeko balioko luketelako», erantsiz.

INGURUMENA ▶

Gabonetako pinuak jasoz birziklatzeko

Pinuak jasotzeko kanpainari ekinen dio hilaren 10ean Ingurumen Departamenduak eta herrian zehar, 21 kokagunetan, Bota piñue adierazpena ikusgai duten edukiontzia jarriko ditu. Biltzen diren pinuak birziklatu egingen dituzte, konposta egin eta lorategietan erabiliko baitute. Ilbeltzaren 14a iraunen du bilketa zerbitzu honek.

Merkataritza ▶

Igarondoko zozketako sarituen zerrenda

Tolosako Merkatarien Elkarteak joan den astean egindako 15 jostailuren zozketako saridunak honako hauek izan dira: Imanol Alonso, Irati Garcia de Iturrospe, Ioritz Galarraga, Joanes Aranburu, Jon Jauregi, Diego Sorrarain, Yanire Paredes, Ainhoa Beobide, Ander Tejedor, Amaia Imaz, Naroa Martinez, Andrea Etxebeste, Maialen Indakoetxea, Jon Lekuona eta Ander Buldain.

iragarki laburrak ▶

Vital Kutxa. 70 lanpostu libre. Sarrerak laster. Matrikulazio irekia. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Haur Hezkuntza. Plaza libreak haurtzaindegi publikoetan, haur eskoletan. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Gidariak. Laster sarrerak udaletan

MENDIA ▶

Mendiaz gozatu eta Euskal Herria ezagutu

Irteeren egutegia atera du Alpinok; hilaren 16an da lehena



Mendi irteera hauek edozeinek egiteko modukoak direla azpimarratzen dute antolatzaileek. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Mendiaz gozatu eta Euskal Herria eta inguruko txoko eta parajeak ezagutzeko gonbidapena luzatu du urtero bezala Alpino Uzturre mendi elkarteak.

«Jendeak beldurra kendu eta gure irteeretara joateko animatu nahi dugu. Baita gazteak ere. Mendi irteera errazak prestatu ditugu, ez da puntako mendizalea izan behar. Maizta artekoak motza dira gainera, 4-5 ordukoa, jateko eta atsendaldiak egiteko denbora barne. Eta taldean joaten gara, inor atzean utzi gabe», dio elkartearen ordezkaririk batek.

2005erako aurkeztu duten eskaintzan hileroko mendi irteera bat jarri dute. Euskal Herriko probintzietan gain, Errioxa eta Kantabriako mendiak ezagutzeko parada ere izango dute joaten direnek.

Egutegia egiteko urtero el-

karte mendizale batzuk proposamenak aurkezten dituzte eta bilera batean aztertu ondoren aukeraketa egiten dute, zailtasuna, luzera eta lurraldea kontuan hartuta. «Leku berriak ezagutzeko gustatzen zaigu eta urtero aldatzen joaten gara. Aurten Bizkai aldera gehixeago joango gara», dio elkartearen kideak.

Egutegian beste aktibitate batzuen berri ere ematen dute. Argazki lehiaketa izango da eta martxoaren 11tik 18ra argazki horien erakusketa egingo dute Kultur Etxean. Istripuen prebentzioaz eta aterpeez ere informazio zabala ematen dute.

Mendi eta eski federazioetako txartela eta aseguroa egiteko garai orain da. Astelehenean eta asteazkenean egin daiteke 19:30etik 21:00etara elkartearen egoitzan, Gudari kalea 5, behean. Web orrialdea ere badute: www.alpinouzturre.com

EGUTEGIA ▶

Hauek dira irteerak eta igoko diren mendiak.

Urtarrilak 16. Azkarate-Urretxu (Gipuzkoa). Irukerutzeta, Keixeta-goikoa eta Irmo.

Otsailak 20. Dima-Areatza (Bizkaia). Urrekoatxa eta Bargondia.

Martxoak 13. Baigorri-Donibane (Behe Nafarroa). Oilarandoi eta Munhoa.

Apirilak 17. Sarria-Orozko (Bizkaia). Usategieta, Odoriaga eta Ubieta.

Maiatzak 15. Santa Teodosia-Larraona (Nafarroa). Murube.

Ekainak 19. Valvanera-Ezkarai (Errioxa). S. Lorenzo.

Uztailak 23-24-25. Picos de Europa (Kantabria). Tesorero.

Irailak 18. Ibañeta-Luzaide (Nafarroa). Lauriña eta Argadi.

Urriak 16. Monreal-Unzue (Nafarroa). Higa, Txanburu eta Unzue.

Azaroak 13. Sodupe-La Arboleda (Bizkaia). Pico de la Cruz, Ganeran eta Pico Mayor.

Abenduak 18. Tolosa-Mandubia (Gipuzkoa). Babarrun jatea.

Autobusak elurretara

Alpino Uzturre elkarteak, mendiaz gain, eskia ere jorratzen du eta urtero bezala autobusak antolatu ditu elurretara joateko. Bi irteera izango dira eta izena elkartearen bertan eman daiteke (943 65 27 89).

Lehen irteera Candanchu-Astun-Somport eski estazioetara izango da urtarrilaren 22-23 asteburuan, bakoitzak gutukoan duen eski mota praktikatu ahal izateko: alpinoa, snowboard, fondoa... Bazkideek 45 euro ordainduko dute eta bazkide ez direnek 50 euro. Prezioan autobusa eta pentsio erdia (lo eta gosa-

ria) aterpean sartzen dira. Fondoko eski ikastaroa egiteko aukera izango da elkartearen monitoreekin.

Bigarren irteera otsailaren 5-6 asteburuan izango da Berretera, Marxa Beret ezaguna dela eta. Larunbatean bakoitzak bere gustura eskiatzea eta bigandean martxan parte hartzea proposatzen dute. Bazkideek 50 euro eta ez bazkideek 55 ordainduko dute. Prezioan autobusa eta pentsio erdia aterpean sartzen dira. Marxa Bereteko izen-ematea aparte ordaindu beharko dute. ◀

hilberriak ▶

eskialak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ mobilak ▶ emaila

+ Jose Gonzalo Guerrero Manterola jauna

Atzo hil zen, 70 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bederikapena hartu ondoren.

- Golan bego -

Haren animaren zuzendaria: Daniel Eskisabel; emaztea: Izaskun Lasa; seme-alabak: Jone eta Iñigo Balerdi, Nekane eta Iñaki Eskisabel; bilobak: Jon, Larratiz eta Uxue; etxeko koinatua: Jose Luis Lasa; anai-arrebak; koinatak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte GAUR LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIRETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan, GORPUBA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hilbidea: Hegoalde 8. Txanberri etxea.

oharra ▶ gorpua Errekaldeko beltategian dago 11:00ak arte

ALEGIA, 2005eko urtarrilaren 8a

TOLOSA ▶ ERAKUSKETA

Usainen mundura gerturatzeko parada, Aranburu Jauregian

Hirurogei esentziek osatzen dute erakusketa; datorren larunbata, urtarrilaren 15a, bitarte egongo da zabalik



Hirurogei esentzia inguru usaintzeko aukera dago Aranburu Jauregiko erakusketan. IÑIGO TERRADILLOS

OLAIA ESKITXABEL

Usaimenaren garrantziaren aldarrikapena egiten duen erakusketa aurkitzen da ikusgai egunotan Aranburu Jauregian. *Sudur-puntan. Esentziak eta lurrin naturalak* deritzon erakusketa horretan aurkitzen diren hirurogei esentzia naturalei esker, ahaztuta dagoen zentzumena, usaimena, alegia, berreskuratzeko aukera izango dute gerturatzen direnek.

Aurkezten diren esentziatik lau artifizialki eginak daude: eskolarena, elizarena, txiklearena eta baso errearena. Erakusketa osatzen duten usain berezi horiei esker, urrutiko oroitzapenak gogoratuko dituzte askok, izan ere, usaimenak oroimenaren garuneko zirkuituekin duen harremana oso estua da. Esentzien purutasuna eta garrantzia bermaturik daudela azaldu dute erakusketako antolatzaileak diren Tolosaldeko Udalak eta La Caixa Fundazioak: «Esentzien prestaketan hainbat adituk hartu dute parte».

Gustuko kolorea aukeratzeko, norberaren izaeraren berri eta gustuko usaina ematen



Norberaren gustuko usainaren berri ematen duen panela. I. TERRADILLOS

duen panela ere badago erakusketan.

Egungo kultur ekimenetan eta ikus-entzunezkoetan «ikusmenari eta entzumenari ematen zaie lehentasuna», azaldu dute; zentzu horretan, erakusketaren helburuetako bat usaimena ostrazismotik ateratzea dela gehitu dute.

Erakusketa datorren larunbatean, urtarrilaren 15ean,

amaituko da; astelehenean ezik, egunero egongo da zabalik 17:30etik 20:30era.

JATETXE BATEK
neska bat behar du
astelehenean
ostiralera eguerdian
Tel.: 943 11 98 28

ANOETA ▶

Eguberrietako pinu naturalak jasotzeko deia

Anoetako Udalak Eguberriak hasi aurretik pinu naturalen ordeztuak erabiltzeko deialdia egin zuen. Hala eta guztiz ere, zenbait etxetan pinu naturalak erabili direnez, Udalak horiek jasoko dituzte birziklatzeko, konposterako erabiliz; beraz, «pinuak zaborra uzten duten ohiko tokietara ateratzea, kontenedoreetan sartu gabe» eskatu du Udalak. Datorren ostegunera, urtarrilaren 13a, bitarte bilduko dituzte pinuak.

IRURA ▶

Autodefentsa ikastaroaren inguruko bilera

Anoetako eta Irurako Udalak autodefentsa ikastaroa antolatu dute. Urtarrilaren erdialdetik ekainaren amaiera bitarte iraungo du ikastaroak eta Iruran izango da. Izenematea asteartean, urtarrilaren 11n, amaituko da; Irurako edota Anoetako udaletxetan eman daiteke izena. Oraindik hainbat gauza zehazteke daude: ordutegia, prezioa... Hori guztia izena ematen dutenen artean zehaztuko da; horretarako bilera asteartean, urtarrilaren 11an, egingo da Irurako udaletxean.

ANOETA ▶

Txirrisklas festa eta kontzertua Gaztetxean

Anoetako Gazte Asanbladak ekitaldi ugari antolatu ditu gaurko; arratsaldean hasi eta goizaldera arte luzatuko da antolatu duten jaiak. 19:30ean, triki-poteoa egingo dute herriko tabernetan eta 21:00etan Gaztetxean bilduko dira afaltzeko. Afarirako txartelak Itzuli tabernan eskuratu daitezke. 23:00etan hasita, Ameba eta Kabul taldeen kontzertua izango da eta bukatzean txirrisklas festa egingo dute goizaldera arte.

ASTEASU ▶

Bi erakustaldi Andazarrate parkean, bihar

Igande goizerako kirol erakustaldiak antolatu dituzte Andazarrate parkean, estreneko. Joseba Egañak eta Angel Elosegik burutuko dute lehenengo erakustaldia. Motozerrarekin hiruna korte egin, enborra ebaki eta korrika beste hiruna buelta egingo dituzte; hiru txanda egingo dituzte. Ondoren, Jose Mari Soruluzeren eta Iñaxio Tapiaren aharien erakustaldia izango da. 11:30ean hasiko da lehenengo erakustaldia. Ekitaldi horietarako sarriera doakoa izango dela azaldu dute antolatzaileek.

TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

FORMAKUNTZA IKASTAROK (Langileentzat) 2004/05
KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA - KATALOGO MODULARRA

IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Fresadora programazioa CNC	40	2005-01-10	18 - 21
Data basea (Access)	30	2005-01-10	18 - 21
Lanaren antolaketa eta kontrola	10	2005-01-10	18 - 21
CAD 3D Modelatua eta planoak (SOLID EDGE)	30	2005-01-12	18 - 21
Galdaragintza eta trazatuen garapena	60	2005-01-12	18 - 21
Kalitatea	65	2005-01-17	18 - 21
Mekanikako industriaren Seguritatea	40	2005-01-17	18 - 21
Web orrien diseinua (Apkiziotako instalazio proz.)	80	2005-01-17	18 - 21
Analisi kontablea	85	2005-01-17	18 - 21
MIG/MAG soldadura horizontal egoeran	50	2005-01-17	18 - 21
Galdaragintza eta trazatuen garapena (Lantec)	60	2005-02-14	18 - 21
Fresadora prestatze eta programazioa CNC	46	2005-02-16	18 - 21
Word (testu kudeaketa)	30	2005-02-16	18 - 21
Soldadura a tope elektrodoz	80	2005-02-16	18 - 21
CAD 2D (AUTOCAD 2005) (maila aurreratua)	40	2005-02-16	18 - 21
Berokuntza instalazioen muntaiak	40	2005-02-21	18 - 21
Automatismo pneumatiko eta elektroneumatikoak	40	2005-02-21	18 - 21
Hidraulika sistema automatikoak	30	2005-02-21	18 - 21
Automatismo elektrotreknikoak	40	2005-02-21	18 - 21
Oinarriko elektrizitatea	30	2005-02-28	18 - 21

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaidea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun ebc: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 -
 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerbitzua:
 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Etxebeste, J.M. Gernikako
 arbola 3 (Tolosa). 943 65 10 40
 Gimeno. Elbarren 52 (Leitza).
 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publi@tolosaldeko
 hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona-aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info

Anoetaidea. 687 41 00 22
 anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaidea. 687 41 01 18.

leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria eta tabernaria.

Sukaldaria eta tabernaria behar
 dira. Deitu 15:00etatik aurrera.
 943 68 21 54.

Garbitzailea. Emakume bat

behar da etxeko garbiketarako
 egiteko. 943 01 92 88.

Sukaldaria. Tabernarako

sukaldaria behar da,
 asteburuetan lan egiteo.
 943 69 19 33.

SALGAI

Baxua. Baxu elektrikoa salgai.
 620 15 65 55.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Kanarioen erreinuan

Espainiako Kanarioen Txapelketa irabazi berri du Gabi Ormazabalek taldekako kanario hori marfilen modalitatean

MADDI SOROA

Pasa den abenduaren 3an, Kanarioen Espainiako Txapelketa egin zuten Sevillan. Bertan izan zen Villabonako Gabi Ormazabal eta berak eraman zuen lehen saria etxera.

Guztira 17.000 kanario aritu ziren lehian, banaka zein taldeka. Ormazabal, lau kanario hori marfilekin aritu zen lehian. Epaimahaiaren lana, kanariorik dotoreena, jarrerarik apainena edota itxurarik osasuntsuena zuten kanario talde onena zein zen erabakitzea izan zen. Sari gisa, domina eta diploma jaso zituen Ormazabalek. Bere hitzetan, ordea, «prestigioa» izan da sari honen eman diona.

Txapelketan parte hartzeko baldintza bakarra jartzen dute antolatzaileek: kanarioak txapelketa burutzen den urtean jaioetakoak izatea hain zuzen ere. Era horretan, kanario guztiek aukera berak baitituzte lehiazterako orduan. Ormazabalek azaldu duenaren arabera, «behin bi urte igarotakoan, kanarioek jarrera dotoreagoak izaten dituzte eta».

Gauzak horrela, gustura dago Ormazabal billabonatarra, eta datorren urtean ere Espainiako Txapelketan garaille suertatzea nahiko lukeela adierazi du.



Gabi Ormazabal ganbaran beretzako gordea dituen kanarioez inguratuta. MADDI SOROA

GABI ORMAZABAL ▶ ESPAINIAKO KANARIO TXAPELKETAKO IRABAZLEA

«Bizio bat da, harrapatu egiten zaitu; geroz eta gehiago eduki nahi dituzu»

Gabi Ormazabalek 38 urte ditu, Villabonakoa da eta bertan bizi da betidanik. Udaltzaina da ofizioz eta kanarioak ditu afizio. Egun, 400 kanario inguru ditu bere etxeko ganbaran. Salgai ditu horietariko asko bertan, beste asko, ordea, begiko jota edo, berarentzat bakarrik ditu gorderik.

Zer ekarri dizu Espainiako Txapelketa irabazteak?

Ez du balio ekonomikorik inondik inora, domina eta diploma soilik jaso bainituen. Txapelketa irabazi izana, urtetan egindako lanaren errekonozimendua izan da niretzat. Egindako esfortzu guztiak zerbaitetarako

balio izan duela alegia. Ospea ere eman dit sariak.

Gogoan al duzu lehenengo kanarioa?

Bai. Merkatuan erositako kanario berdea izan zen lehenengoa, zortzi urte nituen artean. Bigarrena, berriz, Azkoitiko osabak autobusean bidalitakoa izan zen.

Zenbat dituzu orain?

Orain 400 kanariotik gora ditut guztira, zuriak eta horiak dira denak. Otsailean, ordea, 70 bikote jarriko ditut; beraz, hauek izango dituzten kumeekin, 300 izango ditut guztira.

Bi izatetik 400 izatera aldeko dago ba!



MADDI SOROA

Pixkanaka kanario gehiago erosten hasi nintzen. Kanarioen mundua ongi ezagutzen du-

ten lagunak egin nituen eta horrela gaur arte. Bizio bat da, harrapatu egiten zaitu eta geroz eta gehiago eduki nahi dituzu.

Askok pentsatuko du a zer nolako lana hartu duzun.

Sekulako lana da bai, kaiola guztiak garbitu, jaten eman, dena kontrolpean eduki... baina gustatu egiten zait eta esfortzu eta lan guztiek merezi dute. Gainera, toki eta jende asko ezagutu dut horrela eta hori oso baliotsua da niretzat.

Zein asmo duzu etorkizunean?

Datorren urtean Espainiako Txapelketa irabazi nahiko nuke berriro. Horretaz gain, Herberetan Munduko Txapelketan parte hartzen saiatuko naiz. Ikastoletako haurrekin ere lan egin nahiko nuke, animalia eduki eta zaintzeak zer esan nahi duen kontura daitezten. ◀

JOSE LUIS AGOTE ▶ ITZULTZAILEA ETA MAKETATZAILEA

«Asko sufritzen da itzultzen; horregatik jo nuen maketaziora»

Hainbat liburu itzuli eta maketatu ditu asteasuarrak; disko eta kartelen maketazioan ere aritzen da



JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Erdi gaixo dagoela hartu du Jose Luis Agote Ugartemendia asteasuarrak Hirza, bere lanerako ezinbestekoak diren ordenagailuetan murgilduta eta bere lan kuttunez inguratuta, AEBrekin Interneteko telefonoz aritu berri izan dela.

Liburugintzan itzulpenen bidez sartu zinen. Nola?

Bartzelonara joan nintzen Fisi-ka ikastera, baina utzi eta Martutenen Itzultzaileen Eskolan ikasi nuen. Gero itzultzaileen elkartearen —EIZIE— sartu nintzen eta idazkari izan nintzen.

Zer egin zenuen elkartearen?

Eusko Jaurlaritzarekin literatura unibertsaleko 100 liburu itzultzeko akordioa orduan gauzatu zen, baina hasiera eskasa izan zuen eta EIZIE sartu zen itxura aldatzeko eta sustapenerako. Horretan aritu nintzen. Jaurlaritzak gustura hartu zuen aldaketa. Orain beste hitzarmena dago Jaurlaritza eta Alberdania eta Elkar argitaletxeen artean, beste 50 liburu itzultzeko. Beti pertsona berberak ari ziren itzulpenean, orduan lehiaketa itsu-itsuan proposatu genuen eta hala egiten da gaur egun. Horri esker jende ezezaguna hasi da ateratzen, itzulpenak egiten.

Orain itzultzen al duzu?

Testuliburuak itzultzen-eta aritu izan naiz, baina baldintza go-

gorrak ziren. Orain tarteka itzultzen dut, baina gehienbat diseinuan eta maketazioan aritzen naiz.

Norekin egin duzu lan?

Erein, Elkar, Haranburu Altuna, Lur, Igela, Alberdania... Euskal argitaletxe gehienekin. Elkartean ere jarraitzen dut, *Senex* aldizkarian maketazio gehienak nik egiten ditut oraindik. Editore Elkartearentzat ere egin dut lan, idazle eta artista batzuei ere egin izan diet katalogoa. Kartelak ere bai. Herri aldizkari askotan ere aritu naiz. Oraindik Elkar argitaletxea eta Renoko unibertsitatearekin ari naiz batez ere.

Zer moduz dago itzulpengintza gaur egun?

Orain inoiz baino lan handiagoa dago, eskaintza handiagoa baita. Gero eta enpresa txiki gehiago dago itzulpenak egiteko. Administrazioa, publikitatea eta lan komertzialak egiten dira. Nahiko ondo ordaintzen dute, baina lan astuna da. Literatura itzultzea politagoa da, baina merkeagoa. Bi lan motak orekatu behar. Interpretetan lana ordea, ondo ordaindua dago. Asko sufritzen da itzulpengintzan. Horregatik jo nuen beste terreno honetara: maketazioa, informatika... Industrialagoa da.

Nola ikasi zenuen?

Eratat autodidakta izan naiz. Beti izan naiz saltsero samarra

trasteekin. Etxean labodora, berogailua eta horreko trasteen matxura mekanikoak konpontzen genituen. Motoak konpontzen 13 urterekin hasi nintzen. Autoak ere bai. Donostian filmadora eta laser inpresora zuen Richard izeneko batek probak eta fotolitoak egiteko aukera eman zidan. Horrela hasi nintzen.

Zein da zehazki zure lana?

Elkarren denetatik egiten dut, zulo tapatzailea naiz. Testugintzan ari naiz jo ta ke, hurrengo ikastarorako liburu batzuk egiten. Ez dakit iritsiko garen. Gero tarteka sukaldaritzaz edo haurrentzako liburuak ere egiten ditut. Diskoren baten liburuak eta azala, edo publikitatea... Oraindik Et Incarnatus orkestraren Inauterietako *Troika* disko berriaren liburuak eta publikitatea egin dut.

Asko aldatu al da mundu hori?

Liburuaren diseinua eta itxura asko ari da aldatzen. Garai batekoekin konparatuta, lan izugarri gehiago egin behar da. Baina batzuetan lan espantatzen diren ordea, ondo ordaindua dago.

Diseinu mundu honetan normalean artistak aritzen dira. Zu beste mundu batetik zatoz.

Mundu honetan lan teknikoa da nagusi. Nik alde teknikoa eta maketa jartzen dut, artista behar dudanean bati deitzen diot.

Atxaga eta 'Obabakoak'

Herrikidea eta txikitatik laguna duen Bernardo Atxaga idazlea eta bere *Obabakoak* liburu famatuak eragin handia izan du Jose Luis Agoteren ibilbide profesionalan. «Kasualitate hutsez» hasi zen bere lanean. Hasi berria zela maketazioan, esperientzia txarra izan zuen Atxagak argitaletxe batekin, fotomekanikan liburu bateko orri batzuk nahaspilatuta atera ziren. Azken emaitza hobeto kontrolatzeko, Agoteri proposatu zion maketazioa egitea.

Gero *Obabakoak* etorri zen. «Lan luzea eta gogorra izan zen, baina aldi berean pozgarria», dio. Liburu hartan denetatik egin zuen. «Oso liburu indartsua izango zela banekien». Presaka ibili ziren. Atxagak Eskoziatik postaz —arrunta orduan, ez zegoen elektronikoa— bidaltzen zizkion ipuinak, berak pikatu, maketatu, lagun batzuk zuzendketak egin eta berriro bueltan postaz bidaltzen zizkion. «San Pedro bezperetan etorri zen Eskoziatik eta ordu-rako ale batzuk egin nituen. Mikel Laboa, Zumeta eta lagun batzuekin afari bat antolatu nuen Asteasun, Patxinean.

Seko txundituta gelditu zen. Ez zuen uste egongo zirenik», dio Agotek.

Hurrengo urtean Sari Nazionalarena izan zen. «Apostu fuertea». Ibon Sarasolak eta katalan batzuek defentsa handia egin zuten. Itzulpena eskatu zuten, baina Atxaga ez zen gauza, asko sufritzen zuen. «Nahiago zuen berria idatzi lehengoak itzuli baino». «Nik lagun batzuk jarriko nituela itzultzen —tartan Joseba Urteaga tolosarra—, berak zailenak hartzeko eta maketatuko nuela esan nion. Oniritzia emandakoan maketatu egiten nituen eta 11 kopia atera epaimahaikoentzat eta Seur-ez bidaltzen nituen Madril. Dena itzultzeko denborarik ez zigun eman».

Irabazteko faboritoa zen eta ihes egin zuen hemendik. Patxine tabernan kandelak jarri zituzten epaiketa garaian. «Irratiz jakin zuen berak, auzoan zela. Ez zuen sinisten euskaldun bati ematea».

«Nire ibilbidea markatu zuen. Oso esperientzia polita izan zen. Gogorra, baina nekea ahaztu egiten da ondo ateratzen denean», esaten du Agotek. ◀

ARAMBURU
Salgai (Tolosa), Pisua handia Gorosabel 40ean, Garajea aukeran.
Salgai (Tolosa), Pisua altua igogailuarekin Nafarroa Etorbidean, 44.000.000 pta.
Salgai (Tolosa), Pisua igogailuarekin Larramendi kalean, 30.000.000 pta.
Salgai (Tolosa), Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².
Alokatzeko (Tolosa), Lokal komertziala Erremontari kalean.
Alokatzeko (Tolosa), Garajeak alokatzen dira Tolosako leku ezberdinetan.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

JADA ZABALIK
Ergoiena auzoa Tel.: 943 18 01 19
20211 ATAUN

Berezi
44-64
NEURRI BEREZIAK
Beharpenen hasiera
%30 - %40 - %50
Herrerros kalea, 3- TOLOSA
Tel.: 943 67 49 65

KIMETZ
GAZTE ARROPA
%30-eko
ESKAINTZA
Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Gezurrak barra-barra = egiak???

Duela egun batzuk idatzi bat argitaratu zenutenean gu lapurtzeaz salatuz, horrenbeste gezur eta horren handiak izanik ez erantzutea erabaki genuen: zentzu pixka bat duen edozein anoetar ohar-tuko zen. Baina tematuta jarraitzen duzue. Zer uste duzue, gezurrak behin eta berriz errepikatuz egia bihurtuko direla ala? Ez da hala; gero eta handiagoak izango dira.

Kuriosoa da zuek jakitea zenbat diru zegoen Udalean hauteskondeek (eta anoetarrok) hura uztera behartu zintuztenean. Maiatz hartan erabat ezinezkoa zen jakitea. Udaleko kontabilitate penagarria baitzen. Hilabete askotan zehar egin egin behar izan zen, jakiteko zenbat diru genuen, zein gastu egin ziren, zein diru-sarrera zeuden egiteke...

Bai horixe, lokalak erosi dituzte eta urte hauetako dirua gas-

tatu duzue. Eta diru asko gainera: Udalean sartzen zena baino gehiago, eta horregatik gaude gauden bezala anoetar guztiok.

Hauteskunde egunaren eta guk jabetza hartu bitartean 150.000 euro inguru ordaindu ziren (eta ordainketa horietako bat *kuriosoa* da). Eta gainera ordainketa konprometitu gisa utzi zenuztuzten, guk egin genituen, beste 420.000 euro. Kenketa bat egitea nahikoa da, mundu osoa ohar-tzeko zenbat diru erabilgarri utzi zenuen Udalean.

Egia da orain KZgunea dagoen lokala erosi zenutela, baina ez KZgunea eraikitzeo, jubilatua bertan sartzeko baizik lokal berriaren obrak egin bitartean, euren borondatearen aurka. Nork ateratu da etekina lokal hori saltzean?

Udalak aurreko legealdian ere lokal bat erosi zuen eta hor kokatu dugu haurtzaindegia. Baina lokal hori Udalarri zegoen hirigintza-onura gisa; eta, nahikoa ez zenez, alboko lokalaren erdia erosi

behar izan genuen haurtzaindegia egiteko: beraz, ez zeuengana-tu zuei ez dagokizuenik.

Ez dugu kiroldegia alde batera utziko; obra *faraonikoa*. Ikastolak «gimnasio irekia» behar zuen, eta gure ahalbideen esku egon zitekeen proiektu apal horretatik, denok ikus dezakegun tamainako kiroldegira pasatu gara, Tolosan tamaina handiko kirol gune bat eraikitzen ari direla ikusirik, eta Billabonan igerilekua duen kiroldegi bat dugula ikusirik. Hau ordaintzeko gai al gara?

2003ko aurrekontuak ikusiz gero, kiroldegia egiteko diru-partida bat onartu behar izan genuenean, beste era batera ezin baitzitekeen obra esleitu, deigarriak dira aurreikusitako finantzaketa moduak: Udalak plazako etxeak eraikitzei izandako onurez gain; 108.000 euro Ikastolak emango ditu; 300.000 euro Aldundiak subentzitu gisa; 1.300.000 euro Udalerri ondasunen salketa (zeintzuk?) eta 1.000.000 euro maile-

gu bidez. Horrela geu ere gai gara edozein obra egiteko: plazako etxeengatik lortutako dirua aska-lalo non dagoen (sinestu nahi genuke anoetarren onurarako erabili dela, baina oso zaila egiten zaigu); Aldundiaren subentzioari dagokionez, subentzio bat eman (?) behar zigunaren lehen berria jaso zuen gu proiektua aurkeztera eta laguntzaren bat (azkenean ezin izan da iritsi) eskatzera joandakoan. Baina, 2003ko aurrekontuak egin zirenean, subentzio horretaz zipitzi ez. Eta maileguari dagokionean ere ez.

Inoiz bururatu al zaizue eraiki ondoren mantendu egin behar dela? Egin al da azterketaren bat eguneroko mantentze-kostuez eta finantzatzeko moduz? Bai, baina geu ari gara horretan.

Eta BOE-ak? Nahi duenak eskuragarri du Eusko Jaurlaritzaren ebazpena: ez zen BOE kalifikazioa eman aurreko Korporazioak eskatu zuelako, gezurrak esanez, esanez Udalak etxeak

eraiki behar zituela, jakinik hasieratik kontratista bati esleitu zitzazkiela eta kontratista dela BOE kalifikazioa eskatu behar duena (kasu honetan, Bildo 5).

Ez gure kontura barre egin Ikastolako Mankomunitatearen disoluzioa dela eta: guztiok (baita zuek ere) esaten dihardugu desagerteru behar duela, eraikita dagoen bezala egonik, ez baitu inolako zentzurik. Beste gauza askotan bezala, ez zineten ausartzen beharrezko pausoak ematera, eta geu bai, horretan ari gara.

Barregura gehien eragiten diguna biltegiarena da: erortzen ari zen eta egin zenuten bakarra izan zen giltzen etxola bota eta biltegiaren bi hodietatik bat gutuzt pitzatu utzi, urik gabe!!! Aldundiak biltegi berri bat egitea lortu dugu, batere kosturik gabe; eta obrak epe laburrean hasiko dira.

Gauza batean irabazi diguzue: gezurrak esaten. Eta ez dugu horretan zuei irabazteko asmorik.

EJA-EA KOALIZIOA ▶ ANOETA

POLITIKA ▶

OLAIA ESKITXABEL

Bilbon dispertsioa bertan behera uzteko aldarria entzungo da gaur arratsaldean. 17:00etan La Casillatik (Bilbo) abiatuko da Askatasunak eta Etxerat elkarteak deitutako manifestaldia; *Euskal presoak Euskal herrira, orain!* lelopean. Eskualdetik autobusak antolatu dituzte bertara joateko.

Hitzordura ez dute huts egin-gu Villabonako Maite Ortizek eta bere alabak Birjina Zelarainek. Hiru senitarteko dituzte espetxeratuta: Pello Zelarain (Maiteren senarra), Oskar Zelarain (semea) eta Julen Zelarain (iloba). Villenako espetxean (Alacant), Fleury (Frantzia) eta Soto del Realen (Madril-Espainia) aurkitzen dira, hurrenez-hurren.

Beraien senitartekoak, eta, orokorrean, euskal preso politiko guztiak «Euskal Herrian egon behar dute presoan eskubidea delako; gainera, beraien (espainiarren) legeak esaten esaten duen zerbait da», dio Birjina Zelarainek.

Senitartekoak ikusteko bidaia luzeak egin behar dituzte eta horrek «nekeaz gain, kezka sortarazten du. Azkenean, denak urduri egoten gara bidaian ezer gertatu ez dadin. Eta hori ez da urtean behin izaten, aste-bururo baizik», dio Maite Ortizek. Horren ondorioz, «desgastea handia izaten da. Senarra bisitatzeo, esaterako, hamasei orduko bidaia egin behar dugu. Bidaia egin ondoren, be-

Dispertsioarekin amaitzeko eskaera

‘Euskal presoak Euskal Herrira orain!’ lelopean manifestaldia egingo da gaur arratsaldean Bilbon



Maite Ortiz, bere biloba, Ekhi, eta Birjina Zelarain alaba ondoan dituela. OLAIA ESKITXABEL

rriro lanera joan behar da. Ez dago deskantsurik», gehitu du Ortizek.

Familietan haur txikiak daudenean, bisitak egitea zailagoa bihurtzen dela ere aipatu dute. Birjina Zelarainek urte beteko haur bat du eta «txikiarekin bidaia ezin dira nahi adinako maiztasunez egin. Presoak ondoan izanez gero, kontaktu

gehiago izango zuketean familiarekin eta lagunekin». Aipatu dutenez, dispertsioak, familia-rengandik urrutze handia suposatzen du: «Euskal Herrian egonez gero, senitartekoekin, lagunekin... gehigotan egoteko aukera izango lukete. Nire senarraren amak, esaterako, 95 urte ditu eta ezin du Alacantearaino joan semea ikustera; ur-

teak daramatza ikusi gabe. Eta hori oso gogorra da; bera bezala, asko egongo dira osasun arazoak dituztelako, lanean jai eskatu ezinagatik... espetxeratuta dagoen gertuko norbait ikusi ezinik», aipatu du Ortizek.

Gastu ekonomikoa ere handia izaten da; «gure kasuan Udalak diru laguntza ematen digu, baina familia asko daude

laguntzarik jasotzen ez dutena eta arazo ekonomiko latzarekin. Guk ere ezingo genituzte senitarteko guztiak bisitatu diru laguntzarik ezearan».

Aurrera jarraitzeko indarra

«Dispertsioa ilegala da eta gure senitartekoak Euskal Herrian egoteko eskatzen dugunean ez gara ezer berezia eskatzen ari. Eskubide bat da», adierazi du Birjina Zelarainek gaurko manifestaldira joatearen garrantziaz galdetzean: «Bilbon egotea beharrezkoa da. Denok egin behar dugu zerbait presoak Euskal Herrira ekartzeko; eta zerbait egite hori gaurko manifestazioa joatea izan daiteke. Hori egin dezakegun gutxienekoa da; leloak esaten duen bezala pauso hori orain eman beharrezkoa da».

Instituzioei eta alderdi politikoei eskaera berezi bat ere egin diete Ortizek eta Zelarainek: Inplikazio handiagoa izatea. «Hitz politekin ez dira ekaritzen presoak Euskal Herrira; gehiago inplikatu behar dute. Eta benetako nahia baldin bada, konpromisoa gehiago izatea eskatuko genieke», adierazi du Ortizek.

Gaur Bilbon jende asko bilteza senideentzako garrantzitsua dela azaldu dute: «Jende asko ikusteak aurrera jarraitzeko indarra ematen digu». Amaitzeko, «ipurdia mugitu eta denak Bilbora» esanez Bilbora joateko gonbitea luzatu du Ortizek.

IBARRA ▶ KIROLA



Areto futboleko jokalaririk ibartarrek urte berria, indar berriz hasiko du, ziur. iÑIGO TERRADILLOS

Ibartar jokalarientzat gaur konpromiso zaila Burlataren aurka

Puntuen behar nabariarekin, hara joan beharrak dira; Elizgibela polikiroldegian da partidua, 18:30etik aurrera

JAIONE ASTIBIA

Eguberritako jaien inguruko atsedenaldira bukatuta, berriz ere lanean hasteko tenorea iritsi zaie areto-futboleko talde guztiei. Horrela Ibarra taldeak ere gaur bertan ekinen dio jardunari.

Egin ere, Burlataren aurka jokatu behar du eta han. Partidua gaur arratsaldean, 18:30ean da hastekoa, Elizgibela kiroldegian.

Burlatarrak aspaldiko eza-gunak dira ibartarrentzat. Sailkapenean zazpigarren badaude ere, Burlata saileko talderik hoberena dela nabarmendu nahi izan dute Ibarra ardura-dunek «kanpoan jokatu behar dutenean kalitate-mailaz piska bat jaisten badira ere», adieraziz, batez ere hango jo-

kalari zenbaitek lana dela eta, beste herrietara joateko ezintasunak omen dituztelako. Baina bestela, etxean jokatu dituzten ia-ia partidua guztiak irabazi egin dituzte —ligako aurrenekoa huts egin zuten— eta 39 gol egin dituzte eta 21 bakarrik jaso ditu.

Hori ikusirik jardunaldi zail samarra izanen dela uste dute Ibarra. Baina zaila izan arren, ezinezkoa ez da eta gainera, puntuak eskuratzeko behar handikoa dago, izan ere taulako jetsierako lekuetan dago Ibarra eta hortik goraldera egitea premiazkoa dute.

Saiatu beharra dago nolahal «taldea ataka horretatik ateratzen eta lehenbailehen gainera», jakinarazi diote HITZARI arduradunek. Lehendabiziko itzulira bukatzeko bi jar-

dunaldi geratzen dira, gaurkoa eta hurrengoa, baina atsedena egokitzen zaie Rocaren mutilei. Eta 2. itzulian jada, aurrenekoa Gasteizen jokatzekoa dutenez, hilaren 24a arte ez dute etxean jokatzetik izanen, eta orduan Sestaoren aurka egin behako dute, «saileko oilarretako bat», ziotenez. Gauzak horrela, «denboraldi bukaeran larritazunigero nahi ez bada, berehala erantzun beharrean dago», argudiatu zuten, taldearen duten konfidantza berresten zuten bitartean.

Jubeniletako Ligari dagokionez, bigarren itzulira jardunaldi honetan hasiko da, Lauburu taldeari atsedena egokitu bazaiola ere. Edozein moduz, lasai egoteko moduan dira gazteak, aurreneko egonik, hurrengoak 9 puntura baitaude.

LEITZA ▶ KIROLA

Urte berriko lehena, etxean jokatu dute

Aurrera futbol taldekoek altsasuarrei errebantxa hartzeko aukera dute biharkoan



Lehendabiziko lekuaren bila doaz Aurrerakoak. JAIONE ASTIBIA

J. ASTIBIA

Bihar jokatu du urteko lehen partidua Aurrera K. E. futbol taldeak, eta etxean eginen du, Altsasuren aurka.

Partidu burrukatua izateko txartel guztiak ditu, 16:00etan hasita, Arkixkil futbol zelaian jokatu duten honek. Izan ere Martin Salazar entrenatzailearen mutilek lehia bizia baitaramakite altsasuarrekin, liga honetan: maila igoerako ligaxkako parte-hartzea jokoan, bi taldeak aurreneko postu hori lortu nahian ari dira lanean. Beraz, aurrez esan daiteke, emozioz betetako partidua baten aurrean egonik, jokaldi politik ikusteko aukera izan dezaketela bertara bilduko diren zaletuek.

Aurrera, gaur egun, bigarren dago txapelketako sailkapenean 24 punturekin, jokatutako 13 partiduetatik 7 irabazi, 3 berdindu eta beste 3 galdu ondoren. Asteburu honetako arerioarekin, joaneko partiduan —irailean jokatu zuten—, gutxieneko aldearekin, baina galdu egin zuten leitzarrek. Horrela, igande hone-

takoan, ordainak emateko aukera dute eta bidenabarrean gainera, kontuak ateraz, sailkapenean lehendabiziko jartzeko ere bidea irekita dute.

Lehen posturantz

Leku horretarako Aurrerarekin buruz-buru dabilena Altsasu bera izanik, honi irabaziz gero, aurreneko jarriko litzateke Leitzako taldea. Bestalde, sartutako gol kopuruaren arabera ere, abantaila txoa eskuratzeko aukera legoke, horiek ere kontutan hartzen baitira sailkapeneko ordena erabakitzerakoan: kanpoan sartutako golekin etxean sartutakoekin baino gehiago balio dute. Kasu honetan, Aurrerak, oraingoz, bihurtu ditzakeenak kontutan hartu gabe, 49 gol egin ditu, hauetatik 35 kanpoan. Kopuru hau handituz gero, Altsasuk baino tanto gehiagorekin geratuko litzateke.

Hortaz, eginahalak egiteko motibo faltarik ez dago jardunaldi honetan, ez jokalarien aldetik, ez eta zaletuen animoen aldetik ere.

hitza

txokoa

lagunen

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAREN laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilren 8a, larunbata ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurerria.
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

9

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe: ez
Albi: ez

Pagomari: ez
Igaratza: ez

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943
30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irura. Ludoteka eta liburutegia 11:00etatik 13:00etara.
Tolosa. Goiko Irratian (FM 107) *Komerra* saioa 13:00etan.
Tolosa. Gazte Topagunea Kultur Etxean 16:30etik 20:30era.

KIROLAK

GAUR

Futbola

- ▶ Arenas Club-Tolosa (Kadeteen Euskal Liga. 11:00, Gobela. Getxo).
- ▶ Tolosa-EHU (Gorengoen Maila. 16:30).
- ▶ Tolosa B-Roteta (Lurraldekako 1. Maila. 15:30 Zubieta).
- ▶ Intxurre-Lasarte-Oria (Lurraldekako 2. Maila. 15:30 Elorri. Alegia).
- ▶ Usurbil-Danena (Lurraldekako 2. Maila. 15:30 Harane. Usurbil).
- ▶ Sanpedrotarra-Amaroz (Lurraldekako 2. Maila. 17:30 Trintxer. Trintxerpe).
- ▶ Sporting Herrera B-Billabona (Jubenilen 1. Maila. 15:30 Herrera. Donostia).

Areto futbola

- ▶ Ourense-Hegoalde (Emakumeen Ohorezko Maila. 17:00 Ourense).
- ▶ Burlada Rubio-Lauburu Ibarra (1. Maila Nazionala A. 18:30 Burlata).
- ▶ Laskorain-Sasikoa (1. Maila



Ikuskizuna Triangulon

TOLOSA ▶ Atzo egin zuten lehen emanaldia Bordini *show*-eko kideek Trianguloan. Funanbulista ikuskizun aparta izan zen, harrigarria eta jendearen gustukoa. Izango da berririo ikusteko aukera, gaur 19:00etan, bihar 13:00etan eta 19:00etan eta etxi 19:00etan. J. ASTIBIA

Nazionala B. 17:30 Berazubi. Tolosa)
▶ Cash Converters-Jostaldi kirolak (1. Maila A. 18:30 Olaederra. Villabona).
▶ 24 orduko futbito txapelketa Ibarra Belabieta kiroldegian 12:00etan. Laugarren urtez, Gaztebeak antolatuta. Ateratzen duten dirua AHTren aurkako borrokarako dute.

Futbol 7

- ▶ Bar Shanti Kirolak-Taberna Dani (2. Maila. 19:00 Beasain).


Eskupilota

- Lau t,erdiko txapelketa Beotibarren 10:15ean.
- ▶ Mikelperizena-Zubieta/Aranzabe-Galarraga.
- ▶ Cerezo-Retegui/Izagirre-Olaetxea.
- ▶ Fraile-Garcia/Renobales-Mujika.

Euskadiko Kluben Txapelketa.

- ▶ Aurrera-Saiaz (Tellebea)/Legutiano (17:00 Bidania 1. maila).
- ▶ Aurrera-Saiaz (Galarraga)/

GALTAZUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 205.a.
Orrialdeak. 28..
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. Alurr dantza taldea.
Elkarrizketa. Antton Izagirre.
Beste gaiak. Alegiako Gaztebea, Olentzero, batelak, Hernialde eta Beti Alai jatebeak
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▶ Nafarroa et. 6 behea. Tolosa
▶ 943 65 50 04.
▶ galtzaundi@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

Oizpe (17:00 Bidania. 1. maila).
▶ Aurrera/Aurrera-Saiaz (Aspe) (17:00 Leitza. Sub 22).
▶ Berriobxo/Aurrera-Saiaz (Renobales-Mujika).(17:00 Elorrio. Sub-22)

Txapelketa pribatuak
▶ Aurrera-Saiaz (Telleria-Senperena)/Zaramaga (16:00

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 226.a.
Orrialdeak. 28.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Elurra.
Beste gaiak. Olentzero Larraulen, Aritz, Kontseilua eta Villabonako Udala, Asteasuko Udalaren egutegia, Modes Iraola zizurkildarra...
Argitaratzailea. Larramendi Kultur Bazkuna.
▶ Berria 47, 3. esk. Villabona
▶ 943 69 64 50
▶ aiurri@topagunea.com
▶ www.aiurri.com

Gasteiz. Jubenilak).
▶ Aurrera-Saiaz (Aranzabe-Orbegozo)/Zaramaga (16:00 Gasteiz. Sub 22)

ZINEMA

Tolosa. *El maquinista.* 19:30ean eta 22:30ean Leidor zineman.

ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZaren egoitzara; ekarri argazkia



ZORIONAK JORGE!

Zazpi bat urte pasa dituzu/gu denon aldamenean/dantzak dituen sekretuboak/erakutsiz zuzenean/eskerrak eman nahi dizkizugu/guztiaren ordainean/dantzarik gozo ta gogorrena/hastear zauden unean/animo hauek zuretzat dira/dantza talden izenean.
Alegiako Dantzari Txiki Taldea.



URTE ASKOAN

Irati Jimenez. Gaur 15 urte.
Bere aita, ama, aitona, amona eta lehengusuen partetik.



URTE ASKOAN

Ioritz (Tolosa).
Ezetz asmatu zeinen partetik?




URTE ASKOAN

Maddi Zhong Aleman Pagola (Tolosa-Leitza). Gaur 2 urte. Ate, ama, aitun-amonak eta senitartekoak. Muxu handi bat.



URTE ASKOAN

Osaba Joxe Mari (Alegia).
Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Julen eta Unai San Martin.
Julenek herenegun 8 urte eta Unaiak gaur 5. Zorionak eta ondo pasa aita eta amaren partetik. Muxu bat.